

Makina kementsua

Deia, 1985-11-10.

Handia eta kementsua izatea badu mundu honetan abantailarik.

Dabid-en antzeko salbuespen batzu ezik, egia da herri handiek zanpatzen dituztela txikiak, eta gorputz handiko giza emakumeek dutela borrokarako hobaria; mailu kementsuek burdinoletan izan zuten eta gaur makina artean duten berdintsua.

Adibide hau, egunkari berritu honi aplikatu nahi nioke.

Alegia, berrikuntza honetan itxaropen asko jarri denez gero, neuk nire ikus puntutik ez niokela hau besterik eskatuko: DEIA estreinatzen ari den errotatiba kementsuak gure herri osoan goiz eta azkar zabalduko duen *egia*. Ez dadila geuk orain gutxi arte klandestinitatean eskuzko multikopista txikiekin berandu eta urri zabaltzen genuena baino eskasagoa izan.

Ni neu honekin konformatuko nintzateke.

Badakigu egia istilugarri dela; gutxi dela borobila eta handia den egiarik, eta usain honekin zabaltzen direnak kontuz hartzekoak direla; egiak "egia" izatea nahikoa du handia izateko. Gizonarenak, gizonaren egiak, zatitxoak besterik ez dira, eta ikuspegi askok osatzen dutena da gehienetan egia izatera gehien hurbiltzen dena.

Egia konplexua, eztabaidagarria beti.

Ba egia honek duen etsairik handiena, zentsura da. Zentsuraren ezaugarri nagusia, partzialkeria da, auziaren alderdi bat besterik ez du onartzen, eta alde batekokeria honen eraginez, egia gaitzak jo balu bezala murrizten da, eta gizakia oxigeno faltan itotzen den bezala, herri baten egia ere gal' daiteke.

Geure kasu honetan, ez nahiz, gero, teoriak ari.

Kazetariak edo idazleak berak sumatzen duen egia, nahiz eta bereak dituen izen-deituraz babestua joan, onartzen ez denean, zentsurapean erortzen denean, gizona mozalatu geratzen da.

Hau, egia da, makina zahar eta ahularekin gertatzen zen. Itxaropena badut, makina berri-lasterrak lasaiago den bidetik hartuko gaituela; bestela, okerrak zuzentzeko aukera hau ere galduko dugu.

Betor, ba, ongi etorria, lema zuzentzeko gerta aldi hau.

Bestela, galdu du makina kementsuak desafioa, bai makinismoarekikoa, baina batez ere, guretzat, gure herriarekikoa.